



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## **UDALAREN OSOKO BILKURA** **2008ko maiatzaren 29ko ohiko bilera**

### **BERTARATU DIRENAK:**

#### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

#### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.  
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.  
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.- M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ and.  
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.  
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.  
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.  
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.  
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.  
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.  
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.  
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.  
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.  
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.  
EB-B.- DANIEL HERRERA TORRECILLA jn.  
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

#### **EUSKARA ITZULTZAILEA**

IDOIA NOBLE and.

#### **KONTU-HARTZAILEA**

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

#### **BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA**

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta zortziko maiatzaren hogeita bederatziko arratsaldeko zazpiak eta hamar minutu direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## **I.- ERABAKITZEKOAK**

**1.- 2008-04-03AN ETA 2008-04-28AN EGINDAKO OHIKO BILEREN ETA 2008-05-19AN EGINDAKO OHIZ KANPOKO BILERAREN AKTAK ONESTEA:** Izenburuan aipatutako bilkuren aktak onetsi gabe zeudela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri dira.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi ditu** 2008-04-03an eta 2008-04-28an egindako ohiko bileren eta 2008-05-19an egindako ohiz kanpoko bileraren aktak.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

**2.- EUSKARAREN ERAKUNDEAK EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (EBPN) ONETSI IZANAREN BERRI EMATEA:** Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko maiatzaren 13ko 223. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordearen 2008ko apirilaren 1eko 47. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2008ko maiatzaren 13an hartu zuen 223. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Euskararen Erakundea Udalaren Erakunde Autonomoko Zuzendaritza Kontseiluak 2008ko martxoaren 6an Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onetsi zuen, 2008-2011 epealdirako. Azken batez, planaren helburua da hizkuntza-politikaren arloan beharrezko neurriak sustatzea, euskaraz bizi ahal izateko aukera bermatzeko hala nahi dutenentzat eta, era berean, euskararen aldeko ekintzak biziagotzea erabilera erabat normalizatzeko, norberaren erabilerari nahiz arlo sozial eta ofizialeko erabilerari dagokionez.

Jon Peli Lazkano Alzaga Euskararen Erakundeko buruak plan estrategiko horren esanahia azaldu eta euskarak modu berezian zaintzea behar duela azpimarratu du; izan ere, Euskal Herrian bakarrik hitz egiten den hizkuntza da eta gaztelania baino egoera txarragoan dago. Halaber, euskararen ezagutza ez ezik baita, eta bereziki, komunikazio-tresna gisa haren erabilera ere bultzatu behar dela nabarmendu du. Gaiaz luze hitz egin ondoren, bukatzeko esan du Erakunde Autonomoko Zuzendaritza Kontseiluak aldeko bi botorekin (EAJ-PNVko ordezkariak) eta bi abstentziorekin (PSE-EE(PSOE) eta PP taldekoenak) plan hau onetsi egin zuela.

Batzordeko idazkariak adierazi du Eusko Jaurlearitzak diru-laguntzak emateari begira osoko bilkurak plana onesteari buruz erabakia hartzea eskatu duela, nahiz eta arau juridikoetan oinarrituta ez egon.

**Hezkuntzako eta Hizkuntza Politikako Informazio Batzordeak** aldeko irizpena eman dio aipatutako proiektuari, EAJ-PNVko lau ordezkarien eta EB-Berdeak taldeko ordezkariaren aldeko botoei esker; nahiz eta PSE-EE(PSOE)ko hiru ordezkariak eta PPko ordezkaria abstenitu egin diren. Azken horiek, hala badagokio, gai hau aztertuko duen Udalaren osoko bilkuran beraien iritzia azalduko dute.

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA** aipatutako proposamenaren alde agertu da.

### **EZTABAIDA**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Nahiz eta hasieran abstenitzea erabaki zuten, bilera honetan planaren aldeko botoa emango dutela erabaki dute. Plana oso garrantzitsutzat jotzen dute. Edonola ere, gaztelaniazko bertsioan, bigarren orrialdean, helburu haxe agertzen da: *“lograr la total normalización del uso del euskera en Euskal Herria....”*. Baina euren iritziz Leioara mugatu beharko litzateke. Beste alde batetik, seigarren orrialdean akats bat dago, 98/2002 epealdia aipatzen delako eta zuzendu beharko litzateke.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Bukatzeko, gure herrian bi hizkuntza daudela, gaztelania eta euskara, eta biak zaindu behar direla azpimarratu du.

**PSE-EEko Alfonso López Arevalillo jaunak** esandakoaren laburpena:

Plan hau onesteko eragozpenik izan ez dutela baina hura aztertzeko eta ekarpenen bat egiteko astia behar zutela adierazi du. Euren ekarpena kontuan hartua izatea espero du, eta gure udalerrian bi hizkuntzen arteko bizikidetzan nagusi izan behar den berdintasun maila azpimarratu du.

**EAJ-PNVko Jon Lazkano Alzaga jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Udal talde guztien aldeko botoa eskertzekoa dela adierazi du, hizkuntzak integratzaileak izan behar direlako eta, Koldo Mitxelenak esaten zuen bezala, sinbolismoz jantzita daude eta komunikazio-tresnak dira eta aurrera egiten jarraitzeko adostasun sozial eta politikoa egon behar da, eta horixe da, aho batez, gaur hemen adierazi dutena.

Bai euskara bai gaztelania berezko hizkuntzak dira eta horiek zaindu eta bultzatzeko bitartekoak ditugu eta, euskarari dagokionez, badago beste osagai bat: herriaren babesa, jende askok hizkuntza hau jakin nahi izatera bultzatu duena, baina hori ez da nahikoa eta euskarazko komunikazioa ahalbidetuko lukeen erlazio-sarea ezarri beharko litzateke, horrek euskararen normalizazioa ekarriko lukeelako, nahiz eta zenbait eragozpen izan. Lakuak iaz egindako azterlan baten arabera, familia batean kideen % 90ek euskaraz dakitenean berori erabili egiten da, baina portzentajea % 60koa denean, berriz, euskararen erabilerak beherantz egiten du.

Plan honen helburua da apurka-apurka eta guztion adostasunez aurrera egitea eta lau urterako da. Ez da ahaztu behar euskara hizkuntza gutxitua dela eta euskararen aurrerapausoak ez direla gaztelaniaren kaltetan. Euskaldunek Administrazioarekiko harremanetan batzuetan izaten dituzten zailtasunak nabarmendu behar dira eta plan honen inguruan gogoeta egiten lagundu duten talde eta pertsona askoren babesa eskertu behar da, hala nola, Txomin Aresti, Artaza, Barandiaran eta Altzagako guraso elkarteena, Andrak, Lamiakoko jai batzordea, Auzotarrak, Amets Berria, Santimamiñeko jai batzordea eta Gure Ohiturak izeneko elkarteena, judo talde batena eta beste askorena.

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez** Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari (EBPN) oniritzi dio.

**3.- 2009. URTERAKO HERRIKO JAIA ZEHAZTEA:** Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko maiatzaren 20ko 236. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2008ko maiatzaren 13an hartu zuen 57. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren idazkia jaso da (sarrera-erregistroko zk.: 3648/08). Bertan, apirilaren 22ko 70/08 Dekretuaren bidez (2008-04-30eko 81. zenbakidun EHAA) Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2009. urteko jaiegunen egutegia onartu zela adierazi da. 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoaren arabera, lan



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

ondorioetarako, urteko igande guztiak eta ondoren aipatzen diren egunak ez dira egun balioduntzat joko:

- ✓ Urtarrilaren 1a, osteguna, Urteberri eguna.
- ✓ Urtarrilaren 6a, asteartea, Errege eguna.
- ✓ Martxoaren 19a, osteguna, San Jose eguna.
- ✓ Apirilaren 9a, Ostegun Santua.
- ✓ Apirilaren 10a, Ostiral Santua.
- ✓ Apirilaren 13a, Pazko Astelehena.
- ✓ Maiatzaren 1a, ostirala, Langileen eguna.
- ✓ Uztailaren 25a, larunbata, Santiago Apostoluaren eguna.
- ✓ Abuztuaren 15a, larunbata, Ama Birjina abuztukoa.
- ✓ Urriaren 12a, astelehena, Pilarreko Amaren eguna.
- ✓ Abenduaren 8a, asteartea, Ama Birjina Sortzez Garbiaren eguna.
- ✓ Abenduaren 25a, ostirala, Natibitate eguna.

Gainera, 2.2. artikuluan adierazitakoaren arabera, lan-ondorioetarako, 2.009. urtean, tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango dira, hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira errekuperatu beharko. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko lurralde ordezkariak zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako osoko bilkurek proposatuta. Adierazi denez, udalek proposamena egin eta beren lurralde ordezkarietara bidali beharko dute 2008ko ekainaren 1a baino lehen eta jai hori ezin da igande edo jaiegun batean izan, ezta uztailaren 31n ere (egun hori Bizkaiko udal guztietarako jaieguna izango delako).

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak** aldeko irizpena eman dio ekainaren 24a, asteazkena, San Joan eguna, Leioako 2009. urterako herriko jaia izatea proposatzeari.

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA** aipatutako proposamenaren alde agertu da.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez, erabaki du** 2009ko ekainaren 24a ezartzea 2009. urterako herriko jaia izateko, San Joan eguna delako. Erabaki hori Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren Lurralde Ordezkaritzari bidaliko zaio, jakin dezan eta ondore egokiak izan ditzan.

#### **4.- HOMOFIARIEN ETA TRANSFIARIEN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA:**

Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko maiatzaren 20ko 237. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2008ko maiatzaren 13an hartu zuen 58. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzordeburuak maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren kontrako nazioarteko eguna izatea proposatu dutela adierazi du.

Helburu horretarako, onesteko proposatu duten testua honako hau da:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

**“ADIERAZPEN-PROPOSAMENA:**

*Diskriminaziorik ezaren printzipioa Oinarrizko Eskubideen Gutunaren printzipio nagusietako bat da, eta Leioako Udalak, printzipio horren alde egiten duen neurrian, bat egiten du maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren Kontrako Borrokaren Nazioarteko Eguna izendatzearen aldeko ekimenarekin, sexu-orientazio eta genero-identitatea gorabehera pertsona guztien eskubide-parekotasuna lortzeko eta sustatzeko borondatearen ikur gisa.*

*Osasunaren Munduko Erakundearen Batzar Nagusiak homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik ezabatu zuenetik 2008ko maiatzaren 17an 18 urte beteko diren honetan, Leioako Udalak elkertasuna adierazi nahi die, sexu-orientazio eta genero-identitatea dela-eta mundu osoan zehar diskriminazio larria jasaten duten milioka pertsoneri, eta dei egin nahi die herritar guztiei, eta, bereziki, gainerako erakunde publikoei, homofobiaren eta transfobiaren kontra lan egin dezaten.*

*Aipatutako konpromiso horiekin bat, Leioako Udalak eskaera egiten dio Espainiako Estatuko Gobernuari maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren Kontrako Borrokaren Nazioarteko Eguna izendatzea eska diezaion Nazio Batuen Erakundeari.”*

-----

**“PROPUESTA DE DECLARACIÓN:**

*El Ayuntamiento de Leioa en su defensa de uno de los principios básicos de Carta de los Derechos Humanos Fundamentales, como es el de la no discriminación, apoya la instauración del Día 17 de Mayo como el Día Internacional de Lucha contra la Homofobia y la Transfobia, como un símbolo de su apoyo a la promoción y la equiparación de los derechos de todos los ciudadanos y ciudadanas, al margen de cual sea su orientación sexual o identidad de género.*

*Ahora que el 17 de Mayo de 2008 se cumplen 18 años desde que la Asamblea General de la Organización Mundial de la Salud suprimiera la homosexualidad de la lista de enfermedades mentales, el Ayuntamiento de Leioa desea mostrar su solidaridad con las millones de personas que en todo el mundo siguen sufriendo graves discriminaciones por razón de su orientación sexual o identidad de género y hace un llamamiento a toda la ciudadanía y, en especial, al resto de instituciones públicas a luchas contra la homofobia y la transfobia.*

*El Ayuntamiento de Leioa en línea con los compromisos anteriormente mencionados insta al Gobierno del Estado Español a que solicite ante la Organización de las Naciones Unidas la declaración del Día 17 de Mayo como Día Internacional de Lucha contra la Homofobia y la Transfobia.”*

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak** aldeko irizpena eman dio maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren Kontrako Borrokaren Nazioarteko Eguna izateari, nahiz eta PP udal taldeko ordezkariaren abstentzioa egon den. Azken horrek proposamen hau aztertuko duen Udalaren osoko bilkuran gai honi buruzko iritzia azalduko duela adierazi du.

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA** aipatutako proposamenaren alde agertu da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez, erabaki du** aurkeztutako proposamena onestea, eta horren ondorioz, maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren Kontrako Borrokaren Nazioarteko Eguna izatearekin ados egotea.

**5.- 2007-12-31ko ONDASUNEN UDAL INBENTARIOA:** Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko maiatzaren 20ko 241. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2008ko martxoaren 13an hartu zuen 68. irizpenak honakoa dio:

Aztertu dira udal ondasunek 2007-01-01 egunean zuten egoera, sarrera, irteera eta amortizazioak eta 2007-12-31 egunean Udaleko, Udal Euskaltegiko eta Soinu-Atadia Fundazio Publikoko ondasunek zuten azken saldoa. Horien laburpenak honako koadro hauetan zehaztu dira:

**UDALAREN INBENTARIOA**

<u>EPIGRAFEAK</u>	HASIERAKO SALDOA 2007-01-01ean	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZ.	AMAIERAKO SALDOA 2007-12-31n
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	97.486.915,06	4.897.704,33	-969.413,85	-521.736,08	100.893.469,46
Lurrak	10.104.379,77	230.160,67	-324.304,82	0,00	10.010.235,62
Eraikinak	35.481.770,43	949.033,74	-529.337,96	-225.309,13	35.676.157,08
Higiezinetakoa hobekuntzak	5.886.690,78	2.621.341,58	-13.258,99	-296.426,95	8.198.346,42
Instalazioak	100,00	0,00	0,00	0,00	100,00
Herri bideak	46.013.974,08	1.097.168,34	-102.512,08	0,00	47.008.630,34
2. Eskubide errealak	4.167.124,90	474.851,32	-464.703,03	0,00	4.177.273,19
3. Higigarri historiko-artistikoak	596.637,85	137.405,89	0,00	0,00	734.043,74
4. Balio higigarriak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak	159.461,83	21.885,27	0,00	-40.286,23	141.060,87
6. Abereak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	3.340.157,85	586.921,79	-57.412,32	-174.645,40	3.695.021,92
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	501.046,45	0,00	0,00	0,00	501.046,45
<b>GUZTIRA</b>	<b>106.251.343,94</b>	<b>6.118.768,60</b>	<b>-1.491.529,20</b>	<b>-736.667,71</b>	<b>110.141.915,63</b>

**LURZORUAREN UDAL INBENTARIOAREN SEPARATA**

<u>EPIGRAFEA</u>	HASIERAKO SALDOA	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZ.	<u>EPIGRAFEA, GUZTIRA</u>
Ondasun higiezinak eta herri bideak	14.129.003,41	1.000.178,16	-191.722,86	-13.213,16	14.924.245,55
Eskubideak	3.776.403,94	474.851,32	-464.703,03	0,00	3.786.552,23
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.905.407,35</b>	<b>1.475.029,48</b>	<b>-656.425,89</b>	<b>-13.213,16</b>	<b>18.710.797,78</b>



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## UDALAREN INBENTARIOAREN LABURPENA

EPIGRAFEAK	ONDARE OROKORRA	LURZORUAREN UDAL ONDAREA	AMAIERAKO SALDOA 2007-12-31n
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	85.969.223,91	14.924.245,55	100.893.469,46
2. Eskubide errealak	390.720,96	3.786.552,23	4.177.273,19
3. Higigarri historiko-artistikoak	734.043,74		734.043,74
4. Balio higigarriak	0,00		0,00
5. Ibilgailuak	141.060,87		141.060,87
6. Abereak	0,00		0,00
7. Bestelako ondasun higigarriak	3.695.021,92		3.695.021,92
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	501.046,45		501.046,45
<b>GUZTIRA</b>	<b>106.251.341,94</b>	<b>18.710.797,78</b>	<b>110.141.915,63</b>

## EUSKARAREN ERAKUNDEA

EPIGRAFEAK	HASIERAKO SALDOA (€) 2007-01-01ean	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZ.	AMAIERAKO SALDOA 2007-12-31n
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	0,00				
Lurrak	0,00				
Eraikinak	0,00				
Instalazioak	0,00				
Herri bideak	0,00				
2. Eskubide errealak	0,00				
3. Higigarri historiko-artistikoak	0,00				
4. Balio higigarriak	0,00				
5. Ibilgailuak	0,00				
6. Abereak	0,00				
7. Bestelako ondasun higigarriak	138.981,42	1.737,62	0,00	-3.629,19	137.089,85
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	0,00				
<b>GUZTIRA</b>	<b>138.981,42</b>	<b>1.737,62</b>	<b>0,00</b>	<b>-3.629,19</b>	<b>137.089,85</b>



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## SOINU-ATADIA FUNDAZIOA

EPIGRAFEAK	HASIERAKO SALDOA (€) 2007-01-01ean	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZ.	AMAIERAKO SALDOA 2007-12-31n
1. Ondasun higiezinak eta herri bideak	0,00				
Lurrak	0,00				
Eraikinak	0,00				
Instalazioak	0,00				
Herri bideak	0,00				
2. Eskubide errealak	0,00				
3. Higigarri historiko-artistikoak	0,00				
4. Balio higigarriak	0,00				
5. Ibilgailuak	0,00				
6. Abereak	0,00				
7. Bestelako ondasun higigarriak	264.637,61	18.256,19	0,00	-5.015,77	277.878,03
8. Horma-hilobiak eta itzul daitezkeen eskubideak ematea	0,00				
<b>GUZTIRA</b>	<b>264.637,61</b>	<b>18.256,19</b>	<b>0,00</b>	<b>-5.015,77</b>	<b>277.878,03</b>

Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudia onetsi zuen ekainaren 13ko 1.372/1986 Errege Dekretuaren 33. artikulua honakoa adierazten du: urtero egiaztatuko da inbentarioaren zuzenketa. Xedapen horren 34. artikulua dioenaren arabera, Inbentarioaren onespena, zuzenketa eta egiaztapena erabakitze eskumena duen organoa udalaren osoko bilkura izango da.

Luze aztertu dira 2007ko ekitaldian ondasun eta eskubideek izan dituzten era guztietako gorabeherak.

**Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** aldeko irizpena eman dio 2007-12-31ko inbentarioa zuzentzeari; era berean, egoki iritzi dio 2007-12-31ko inbentarioa zuzentzeari buruzko gaia osoko bilkuraren hurrengo bilerako aztergai zerrendan sartzeari.

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA** aipatutako proposamenaren alde agertu da.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez erabaki du** 2007-12-31ko Ondasunen Udal Inbentarioa onestea, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

**6.- HASIERAN ONESTEA PLAN OROKORRA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, ONDIZ HUTSIK (37. ARLOA) EREMUARI BURUZKOA, ERAIKIGARRITASUNA HANDITU GABE ETXEBIZITZA KOPURUA GEHITZEKO AUKERA EMATEKO.** Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko maiatzaren 27ko 254. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2008ko maiatzaren 19an hartu zuen 88. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek HAPOk 37. Arloaren (Ondiz Hutsik) ezaugarrien berri eman dute: hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzorua da, etxebizitzaren % 65 BOE dira eta % 35, berriz, prezio librekoak; eraikigarritasuna 0,341 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>-koa da.

Bere garaian Leioako Udalak eta Abra Urbanizaciones 96 S.A. enpresak sinatutako hitzarmenaren arabera, BOEn lur-zatietako bat sustatzeko arduraduna den Ondiz S.Coop. etxeak 2008-04-04ko idazkiaren bidez (sarrera-erregistroko zk.: 2.675) hauxe adierazi du: *“egun lur-zati horretan eraikitzeke dauden aukerak aztertzen ari gara, haren bolumetria kontuan hartuta ahalik eta aprobetxamendurik handiena lortzeko. Lur-zatiak 3.864 m<sup>2</sup>-ko eraikigarritasuna dauka 38 etxebizitzatarako; hortaz, batez besteko azalera 101 m<sup>2</sup>-koa da, etxebizitza bakoitzeko. Etxebizitza kopurua gehitzea oso interesgarria izango litzatekeela uste dugu, hau da, 38 izan beharrean gehienez 46 izan daitezela. Hori % 20 inguruko gehikuntza izango litzateke baina eraikigarritasunak ez luke aldaketarik izango, eta etxebizitzaren batez besteko azalera 84 m<sup>2</sup>-koa izango litzateke. Lur-zatiak arkitektura aldetik dituen aukerak hobeto aprobetxatzeaz gain, etxebizitza kopuru handiagoa eskaini ahal izateak familia gehiagori arazoa konpontzen diela uste dugu.”*

Udaleko Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute, indarrean dagoen Hirigintzari eta Lurzoruari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eraikigarritasuna handituko ez duen etxebizitza kopuruaren aldaketaz ezer aipatu ez arren, antolamendu xehatuan sartzen den aldagaia dela interpretatu daitekeela Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txosten loteslea eskuratu behar izan gabe, eta zuhurtziaz jokatzearren eta administrazio-koordinazioaren printzipioari eutsita, egiturazko antolamenduari eragiten zaionez, espedientea plangintzaren aldaketa gisa tramitatzea interesgarritzat jo dutela.

Zehatz esateko, eta eraikigarritasuna handituko ez dela kontuan hartuta, eragiketa taula honetan azalduta dator:

	PLAN OROKORREAN	PROPOSATUTAKO ALDAKETAN (1)	ALDEA
BOE	76	92	16
EL	40	48	8
<b>GUZTIRA</b>	<b>116</b>	<b>140</b>	<b>24</b>

(1) Proporzio honi eutsi zaio: etxebizitzaren % 65, BOE; % 35, EL.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako tramiteak egitea komeni dela iritzi du:

- Hasieran onetsiko da Leioako HAPOren aldaketa zehatza, Ondiz hutsik (37. arloa) eremuari buruzkoa, eraikigarritasuna handitu gabe etxebizitza kopurua gehitzeko aukera emateko.
- Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 108. artikuluan xedatutakoa betetzeko, herritarrei postontzietan uzten zaien udal aldizkarian espedientearen edukiaren laburpena argitaratuko da, alegazioak aurkezteko epeak irauten duen bitartean.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Horri buruzko iragarkia argitaratuko da BAOn eta egunkarietan, jendurrean hilabetez azaltzeko izapidea betetzeko ondoretarako, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.5 artikuluan adierazitakoaren arabera.

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA** aipatutako proposamenaren alde agertu da.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez erabaki du**, Plan Orokorra aldatzeko espedientea hasieran onestea, Ondiz hutsik (37. arloa) eremuari buruzkoa, eraikigarritasuna handitu gabe etxebizitza kopurua gehitzeko aukera emateko.

**7.- LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN 3. ALDAKETA, ZERBITZUKO AZALERA HANDITZEAREN ETA UDAL GARBITZAILEAK ERRETIROA HARTZEAREN ONDORIOZ:** Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko maiatzaren 27ko 256. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2008ko maiatzaren 19an hartu zuen 90. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute, Udalaren osoko bilkurak 2003-04-11n hartutako 3. zenbakidun erabakiaren bidez, Urazca Servicios y Medio Ambiente S.A.k eta Halsa S.L.k osatutako ABEEri udal lokalak garbitzeko zerbitzua esleitu zitzaioela.

Aipatutako kontratuan bi aldaketa egin dira orain arte; aldaketok Udalaren osoko bilkurak 2006-06-29an eta 2007-04-27an hartutako 11. eta 2. zenbakidun erabakien bidez, hurrenez hurren, onetsi ziren.

Une honetan asmoa da Udaleko Bulego Teknikoak eta enpresa adjudikaziodunak ados jarrita gauzatu nahi duten 3. aldaketa onestea. Horrek hileko kanona modu honetara handitzea ekarriko luke (BEZa barne):

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA (BEZa BARNE)
Kandelazubieta kiroldegian garbitu beharreko azalera handitzea	4.893,15 □
Udaleko Bulego Teknikoaren bulego berriak	2.851,58 □
Txorierriko adinekoen etxea	886,11 □
Pinuetako adinekoen etxeko azalera handitzea	3.332,15 □
Erretiratuaren etxetako tabernetako leihoen eta errezelen garbiketako Errekalde .....	197,81 □
Pinueta .....	301,20 □
Lamiako .....	386,39 □
Estartetxeko Gizarte Zerbitzuetako lokala, udal garbitzaileak erretiroa hartzearen ondorioz	1.713,34 □
<b>HILEAN, GUZTIRA .....</b>	<b>14.561,73 €</b>



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Aipatu den hileko zenbateko horren ondorioz urteko oinarrizko kanona 174.740,76 euro igoko litzateke (BEZa barne).

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Udalaren osoko bilkurak proposatu den aldaketa onartuko du.
- Urteko 174.740,76 euroko zenbatekoa esleituko da, dagokion partidaren kontura.
- Kontratua aldatuko da, adierazi diren zehaztasunak bilduta.
- BAOn beharrezko iragarkia argitaratuko da.
- Espedientea Kontuen Auzitegiari bidaliko zaio.

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA** aipaturako proposamenaren alde agertu da.

#### **EZTABAIDA:**

**EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Kontu bat baino ez du aipatu: Batzordean aurkeztu ziren zenbatekoekin erkatuta 22 euroko aldea dago, urteko gehikuntzak egiterakoan KPIren aplikazioan akats bat egon delako. Dagoeneko diferentzia hori zuzendu da eta erabaki honetan agertuko da.

#### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez erabaki du** lokalak garbitzeko zerbitzuaren kontratuaren 3. aldaketa onestea.

## **II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA**

**8.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK, 2008-04-25etik 2008-05-23ra.** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipaturako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

#### **9.- PRESAZKO MOZIOAK:**

**XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jaunak, LEIOAKO UDALEKO ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAREN BOZERAMAILEAK** honako mozioa aurkeztu du, **Osoko Bilkura** honetan eztabaidatu eta onesteko:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## MOZIOA

2003ko azaroaren 13an egindako Osoko Bilkuran gure Udalak bat egin zuen Terrorismoaren Biktimen egoera arintzeko Neurriei buruz Eusko Legebiltzarrak talde politikoaren aho batez urte hartako ekainaren 25ean onartutako ez-legezko proposamenarekin.

8. puntuan, onartutako Proposamenak honakoa ezartzen du: *“Eusko Legebiltzarrak, udalen autonomiari jaramon eginda, Biktimen oroimenerako iraingarriak diren kale eta plazen izendapenak aldatzea sujeritu nahi die udalei”*.

Ondoren eta Parlamentuko Euskal Taldeak Diputatuen Kongresuan proposatuta, aurreko paragrafoan aipatutakoaren testu berbera onetsi egin zen 34. ebazpen-proposamen gisa 2003. urteko nazioaren egoerari buruzko eztabaidan. Paragrafo hori Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailaren 17an egindako osoko bilkuran berriro berretsi zuen.

Ildo horretatik, eta oraintsuago, Eusko Legebiltzarrak joan den ekitaldiko urriaren 5ean eta 17an egindako osoko bilkuretan, beste ebazpen bat onetsi zuen. Horren bidez udalei honakoa eskatu zitzaion: *“gure herriko eta hiriko kaleetatik terrorismoaren biktimen oroimena irain eta min ditzaketen kartel, pintada eta kontsiderazio guztiak desagertzen joateko ahaleginak handitzea.”* Bukatzeko, Zizurkilgo udalak joan den apirilaren 14an egindako osoko bilkuran herriko kaleetan ETAko bi kideren izenak kentzeko erabaki zuen.

Gure udalerriko kale-izendegia erreparatuz gero ETA erakunde terroristako hiru kideren omenezko izendapenak aurkituko ditugu kale bitan :

- *Avenida “Txikia” Etorbidea*: Eustaquio Mendizabal, “Txikiaren” omenezkoa. Hori erakunde terroristaren buruzagirik nabarmenetako bat izan zen 70eko hamarkadan. Lorenzo Zabala eta Felipe Huarte enpresaburuaren bahiketen arduradun izan zen.
- *Avenida “Txabi eta Joseba Etxebarrieta” Etorbidea*: Txabi Etxebarrietak José Pardines Arcay guardia zibila erail zuen 1968an. Hori izan zen ETArri egotzi zaion lehen erailketa. Joseba Etxebarrieta, lehengoaren anaia, banda terroristaren ideologo nagusietako bat izan zen sorrerako aldian.

Horrela bada, zoritxarrez, gure udalerriko kaleetan gaur egun Terrorismoaren Biktimen oroimenarentzat izen iraingarriak dauzkaten plakak aurkituko ditugu, horietan izen-abizen eta guzti nabarmentzen direlako 800 hildako baino gehiago eragin dituen erakunde terroristaren baten kide ezagunak; eta areago, erakunde terroristak horrek gaur ere mehatxatzen du ehunka lagun bizi Leioan, Euskadin eta Espainian.

Beraz, eta Udal honek 2003ko azaroan hartutako erabaki horri eta udalaz gaindiko erakundeek hartutako erabakiei helduta, Alderdi Popularrak udal taldeak, lehenengoz, eskatu nahi du aipatutako izen ofizial horiek Leioako kale-izendegitik kentzeko.

Bigarrenez, gure taldeak uste du oraingoan ordezkari izen baliokide izan behar dutela gure kale-izendegia herritar guztien erreferentzia eta eredu izango diren izenekin aberasteko.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Horrela, Alderdi Popularra udal taldeak proposatu nahi du “Avenida Txabi eta Joseba Etxebarrieta Etorbidea” izenaren ordezkari “Avenida de La Libertad / Askatasuna Etorbidea” jartzea, gizaki ororen funtsezko eskubideetako bat aintzatezteko, hain zuzen ere, ETA erakunde terroristak eskubide horri egunero eraso egiten baitio.

Halaber, “Avenida Txikia Etorbidea” izenaren ordezkari “Avenida de Europa / Europako Etorbidea” izena jartzea proposatu nahi dugu, milioika hiritarrek partekatutako esparru politiko demokratikoa aintzatezteko.

ONDORIOZ, ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAK HONAKO ERABAKIAK BIHURTU DIZKIO OSOKO BILKURARI, EZTABAIDATU ETA ONETS DITZAN.

**LEHENENGOA.** Leioako Udalak “Avenida Txabi eta Joseba Etxebarrieta Etorbidea” eta “Avenida Txikia Etorbidea” izenak udal kale-izendegitik kentzea erabaki du.

**BIGARRENA.** Leioako Udalak lehen erabakian aipatutako izenen ordezkari hurrenez hurren “Avenida de La Libertad / Askatasuna Etorbidea” eta “Avenida de Europa / Europako Etorbidea” izenak jartzea erabaki du.

Leioan, 2008ko maiatzaren 29an.

### **EZTABAIDA:**

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Presazko mozioak aztertzerakoan ohitura den bezala Xabier Olabarrietak mozioaren egilea den aldetik premia arrazoitzeko hitza hartuko du eta ondoren gai honi buruz esan beharrekoak esateko aukera egongo da. Ondoren premiari buruzko bozketa egingo da eta onestekotan mozioaren funtsaz eztabaidatzeari ekingo zaio.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Mozioa ETA erakunde terroristako hiru kideren izena duten udalerriko bi kaletan izena kentzeko eskaerari buruzkoa da, eta izen alternatiboen proposamena erantsi da.

Asmoa ez zen gai hau presazko mozio gisa ekartzea; izan ere, horri buruzko proposamena aurkeztu zuten apirilean, Batzordera eramateko eta irizpena eman ondoren osoko bilkurak onesteko, osoko bilkurak horri buruzko iritzia emateko gaiak nahikoa garrantzia baduela uste zutelako. Hala ere, PP taldearen berariazko eskaera eta PSE-EE taldearen babesa gorabehera, proposamena ez zen osoko bilkurara ekarri. Alkateari zegokion erabaki hori hartzea eta tamalez ez zuen hartu.

Aurkeztu duten testua 2005. urtean aurkeztu zutenaren oso-oso antzekoa da eta osoko bilkura honek 2003ko azaroaren 13an aho batez ia hartu zuen erabakian bereziki oinarrituta dago. Izan ere, Eusko Legebiltzarrak onartutako ez-legezko proposamena berretsi zuen. Bertako 8. puntuan agertzen zen Eusko Legebiltzarrak, udalen autonomiari jaramon eginda, Biktimen oroimenerako iraingarriak diren kale eta plazen izendapenak aldatzea sujeritu nahi ziela udalei.

Tamalez Leioan 1979. urtetik terrorista batzuen izenak dituzten bi kale ditugu eta euren ustez osoko bilkurak iritzia eman eta plaka horiek kendu beharko lituzke, Leioak ezin duelako gehiagotan eduki erakunde terrorista bateko kide diren eta pertsona batzuen



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

hilketan eta bahiketan parte hartu duten pertsonen eskaintako bi kale, hori baino ez delako gizarteari egin dioten ekarpena.

Mozioak eskatzen du, 2003. urtean onetsitakoaren ildotik, osoko bilkura honek kale horien izenak kentzeko erabakia hartzeko, erakunde terrorista bateko kide izan ziren pertsonak direlako eta udalerrri baten kale-izendegian horrelakorik egotea biktimen oroimenarentzat iraingarria delako, argi eta garbi.

Laburbilduz, kale horien izenak kentzeko eskatzen dutela adierazi du. Zehatz esanda, Txikia Etorbidearena eta Txabi eta Joseba Etxebarrieta Etorbidearena, eta horien ordezkari, zera proposatzen dute –nahiz eta proposamen irekia izan- izen alternatibo gisa: Askatasuna Etorbidea, gizaki ororen funtsezko eskubideetako bat aintzatezteko, hain zuzen ere, ETA erakunde terroristak eskubide horri egunero eraso egiten baitio; eta beste izena, Txikia Etorbidearen alternatiba gisa, Europako Etorbidea izango litzateke, milioika hiritarrek partekatutako esparru politiko demokratikoa aintzatezteko.

Mozio hau aurkeztu dute horren premia onetsia izan dadin, eta eztabaida baten ondorioz mozioa bera onetsia izan dadin.

**PSE-EEko Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:**

Gauza jakina da aurkeztu diren mozio guztiak aztertzearen alde daudela, premiaren egokitasunaren bidez taldeei osoko bilkuran hitza hartzeko aukera baino ez zaielako ematen eta horregatik mozio aztertzearen aldeko botoa emango dute.

Hala ere, Batzordean jada euren taldearen jarrera argi utzi zuten, hau da, Gobernuaren Ordezkaritza eta Alkatetza bidaltzen ari diren idazkien berri izan nahi zutelako, eta ez prentsaren bidez, lehenengo horrek eskatuta euren iritzia eman ahal izateko.

Edonola ere, ez dakitenez 2001. urteak pairatzen duena 1979. urteak pairatzen zuen berbera den, gai hau Batzordean aztertzeko prest daude, lasaiago aztertu ahal izateko.

**EB-Berdeak taldeko Daniel Herrera Torrecilla jaunak esandakoaren laburpena:**

Batzordean gai hauek zenbat eta gehiago eztabaidatu eta jarrerak zenbat eta gehiago argitu, orduan eta tirabira gutxiago egongo da osoko bilkuran. Ez dago zalantzarik taldeek ez dutela ETAREN ekintza defendatzen baina batzuek defendatu zuten diktaduran erakunde hori ulertzeko modu ezberdina zegoela, oraingo garai demokratikoan dagoenarekin erkatuta, eta hori ez da diktaduran borroka armatua justifikatu zutelako, ezpada herrialde honen historiako epealdi ilunagatik.

Gaur egun inori ez zaio bururatzen halako izenik jartzea hemengo herri batean, baina 1979. urtean pertsona horiek zelata batzuetan hil zirela kontuan hartu zen. Azken batez, oso epealdi nahasia bizi izan zen, eta horrek ez zuen borroka armatua justifikatzen baina urte hartan izen horiek ipintzea erabaki zenean, ez ziren ipini borroka armatuarekin ados zeudelako, nola hil ziren kontuan hartu zelako baizik. Esate baterako, Portugaleten Joven Guardia Roja-ko kide bat pintada bat egiten ari zela hil egin zutela aipatu du.

Amaitzeko adierazi du gaia sentikortasun handiz aztertu beharko litzatekeela, inguruabar historikoak baloratuta eta, edonola ere, borroka armatua gaitzetsita eta hori gaur egun onartezina izango litzatekeela kontuan hartuta.

**EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak esandakoaren laburpena:**

Euren taldeak aurreko osoko bilkuretako jarrerari eutsiko dio premiaren gaiaren inguruan, benetan presazkoak direnak aztertu behar direlako.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Horrela bada, euren taldearen iritziz honakoa ez da presazko gaia baina bai euren taldeak bai gizarteak, oro har, terrorismoari buruzko autokritika egin behar duela uste dute, hementxe bertan bizkartzainak dituzten zinegotziak baitaude.

Funtsezko alderdiari dagokionez, zalantzarik gabe kale horien izenen atzean dauden pertsonak ez dira gure heroiak, baina 1979an, amnistiaren ondoren, udal ordezkariak sentsibilitateak batu nahi izan zituzten eta adostasun hori lortu zuten kaleak izendatzean; gaur egun, aldiz, seguruenik ezin izango genuke horrelakorik egin. Hala ere, baliteke azken urteetan zehar gertatutako guztiaren “digestio patxadatsua” egitea beharrezkoa izatea eta segur aski ere baketzeko ahalegina egin beharko dugu, terrorismoaren aurkako jarreratik ez ezik baita ikuspuntu demokratiko guztiak aintzat hartuta ere. Horrela, proposamenean Askatasuna Etorbidea aipatzen da eta denok hitz horri eman nahi zaion norainokoaz pentsatu beharko genuke eta, kale bati “Europa” izena ipintzeko proposamenari dagokionez, emakumeen izenak ere ipini litezkeela pentsatu beharko genuke, hau guztia berrikusi beharreko kontua da eta.

Urratsak ematen ari gara baina ez da aurreikusten normalizaziora helduko garenik eta orain gai hau aztertzeko une egokia ez dela uste dute.

#### **PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:**

Gai hau presazkotzat ez hartzea sentitzen dute, gure kale-izendegia duin ez bihurtzea esan nahi duelako, eta udalaren funtsezko egitekoetako bat bere balioak eta oinarritzko kontuak zaintzea da eta hau oinarritzko kontua da, gaur egun inorentzako eredu ez diren izenak kale-izendegian agertzea onartezina baita. Beste alde batetik, 1979. urtean izen horien aldeko botoa eman zutenetako batzuek, zoritxarrez, erailketen alde zeuden eta egun oraindik badago horrelakorik. Aldea da 1979. urtean udal honetan zeudela eta, zorionez, 2008.ean ez daude ez dutelako ordezkariak erakunde demokratiko gehienetan, nahiz eta batzuetan, ordea, eduki.

Hogeita hamar urteren joan-etorria denbora luzea da. Bada, egun ulergarria da Leioako udalak duela hiru urtetik hona César Uceda saria antolatzea, pertsona horren omenez. Kontserbatorioko irakaslea zen militarra izan zen eta ETAk hil zuen. Hala ere, eurentzat inkoherentea da terrorismoaren biktima baten omenez musika-lehiaketa bat antolatzea eta aldi berean kale-izendegian terroristen izenak agertzea oraindik.

Bukatzeko, bere taldeak udalerriko kale-izendegian izen horiek ez agertzea lortzeko lan egiten jarraituko duela, eta EAJ eta EBren jarrerak hura penatzen dutela esan du.

#### **EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:**

Nahiz eta gauza jakina eta onartua izan, premia justifikatzerakoan taldeek gaiaren funtsa azpimarratzen dute eta nahiz eta Alkateak hori onartu, ulertzekoa da alkateak hitz egitea –EAJ-PNVko bozeramaileak gai azaldu duen aurkaritzarekin bat egiten duela-, beraren eskumeneko gai batez aritzean –kaleen izendapena alkatearen eskumenekoa delako- eta alkate hau prentsan dagoeneko gaitzetsi dutela kontuan izanik.

Honakoa eztabaida errepikakorra da, Xabier Olabarrietak esan bezala, aurreko udalbatzan mozioa aurkeztu zen; udalbatza honetan beste mozio bat (bigarrena) aurkeztu da eta beste bat (hirugarrena) badago, hurrengo udalbatzan izatea espero du; izan ere, malgutasuna erabiltzen bada ere horrek ere badu bere muga eta jarrerak dagoeneko argiak direnean gai berritua ez heldzea aholkatzen du. Osoko bilkurak ez dira txikieki eta errespetua zor zaie.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

## BIZKAIA

Beste alde batetik, eztabaida ez dute inola ere alboratzen, udalak arau batzuk dituelako eta kasu honetan eztabaida Barne Araubideko Informazio Batzordera bideratzen dute, osoko bilkurara ekartzea beharrezkoa izan barik.

Gaineratu du EAJ-PNV udal taldearen jarrera ezaguna dela baina esan du delako izenak onartu zituen udalbatza, demokratikoa zela, Herri Batasunako hiru zinegotzi zituela eta erabaki demokratikoa hartu zuela, trantsizioan zegoen eztabaida sentikortasun handiz biziz. Horrela bada, Joseba Etxebarrietak kondenatuta zeudenen abokatu gisa parte hartu zuen Burgosko prozesuan, besteak beste, Mario Onaindiaren abokatu gisa. Hortaz, garai hartan kokatu beharreko erabakiak dira eta inguruabar guztiak baloratu behar dira. Horri dagokionez, orain dela gutxi Salamancan proposamen bat egon da Franco jeneralari hiribilduko ohorezko alkatearen titulua kentzeko eta hori demokratikoa ez zen udalbatza baten erabakia izan zela imajinatzen du eta orain udalbatza demokratiko batek proposamena ez babestea erabaki du eta Alderdi Popularrekoa den alkateak ez dio eztabaidatzeari ekin.

Erabaki hauek berrikusterakoan arreta handiz aztertu behar dira, ordutik hona igarotako urteak eta beste inguruabar batzuk kontuan hartuta. Bada, Getxoko udalean ez du aurrera egin Alderdi Popularrak kale baten izenari buruz – Txikia Etorbidea- aurkeztutako mozioak. Alderdi sozialista abstenitu zen eta Euzko Alderdi Jeltzaleak aurkako botoa eman zuen, eta biek honakoa argudiatu zuten: Amnistia Legeak bizi zirenentzako balio bazuen, are gehiago hildakoentzako balio izan zuen.

Ez naiz iraganaldia berrikustearen aldekoa, kontu amaiezina izan bailiteke. 1979. urtean egin ziren kale izendapenen kasu zehatzean, Cervantes plazaren ordeztu Orixen izena ipini zenean piztu zen eztabaida, zegokion batzordean, nahiz eta gaur egun Cervantes plaza Pinuetan egon.

Orduan izen batzuk kendu ziren beste batzuk ipintzeko eta ildo horretatik jarraituko bagenu, izenak etengabe aldatu ahal izango lirateke, kontu hau oso pertsonala delako eta hainbat ñabardura dituelako...

Era berean, "Dignidad y Justicia" elkarteak kale horien izenak kentzeko eskatzen duenean, udal honi "Ayuntamiento de Lejona" deitzen dio temati, udalbatza demokratiko batek aho batez Leioa izena aukeratu zuen arren.

Azken batez, egungo egoerari erreparatuta, eta gaia justiziaren esku dagoela eta alkate hau agian Audientzia Nazionalera deklaratzera joan beharko dela aintzat hartuta eta askotariko erabakiak daudela kontuan hartuta, epaileen ebazpenaren zain egon beharko gara.

### **PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Zehaztasun bat eman nahi duela adierazi du: Marcelino Orejari ere kalea kendu zitzaion, jeneral frankista izan zela uste zelako, baina tradizionalen arteko izarra izan zen, 34ko iraultzan hil zena, etxean eraila, eta kale bat edukitzea edo ez merezi zuen zalantzan jarri zen, baina arrazoiak ahulak ziren.

Udalerriaren izenaren aldaketa agian zuzena izan zen baina arrazoia okerra izan zen; izan ere, Euskaltzaindiarekin hitz egin ondoren, dena zentzugabekeria izan zen eta gauza batzuetan zuzendu daiteke baina beste batzuetan ez. Jakin-mina duenak Euskaltzaindiarekin hitz egin dezala esan du.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Orokorrean udalbatza baten izen ona galarazi duela adierazi dio aurrekoari. Era berean, ildo horretatik, udalbatzak lau urte ondoren emaitza hobekak lortu zituela eta, hortaz, herri honek udalbatza hark, haren ustez, egin zituen zentzugabekeriei oniritzi zuela esan dio.

Cervantes kalearen gaiari dagokionez, bidegabekeria egin bazen ondoren zuzendu zela esan dio, Cervantesek kale bat duelako Leioan.

**EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Leioaren izena dela eta, oso gai interesgarria dela baina udalaren osoko bilkura horretaz eztabaidatzeko leku egokia ez dela esan du.

Alderdi Popularrari esan dio Euzko Alderdi Jeltzaleak ez duela onartzen mozio honen premia; izan ere, euren ustez gaiak oso ongi prestatuta eta garatuta ekarri behar dira osoko bilkurara eta, ildo horretatik, euren taldeak eztabaida erabat onartzen duela gaineratu du, baina eztabaida-leku egokian egin behar dela uste du.

Mozioa eztabaidatzea egokia den erabakitzekeo premiaren bozketa egiteko agindu du alkateak.

**PREMIAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA, UDAL KALE-IZENDEGITIK “AVENIDA TXABI ETA JOSEBA ETXEBARRIETA ETORBIDEA” ETA “AVENIDA TXIKIA ETORBIDEA” IZENAK KENDU ETA “AVENIDA DE LA LIBERTAD / ASKATASUNA ETORBIDEA” ETA “AVENIDA DE EUROPA / EUROPAKO ETORBIDEA” IZENAK, HURRENEZ HURREN, JARTZEARI BURUZ**

Lehenengo eta behin, azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarri hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da.

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **Aldeko bederatzi boto**, PPko hiru zinegotzienak eta PSE-EEko sei zinegotzienak; **kontrako hamabi boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotziena. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, botoen gehiengoz, mozioaren premia baztertu du, berau eztabaidatu eta bozkatu behar ez dela erabakiz.

## **10.- ESKAERA ETA GALDERAK.**

### **1. - Eskaera**

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Badakite Hirigintzako Batzordean azalduko duen gaiaren berri eman ohi dela. Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailaren bitartez Leioako udalari irisgarritasunari loturiko jarduerak egiteko 53.382 euroko diru-laguntza eman zaiola jakin dute eta aurreko aldietan bezala, Batzordean partida honen erabilerari buruzko azalpenak emateko eskatu du mesedez.

**EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Batzordearen hurrengo bilerako gai-zerrendan agertuko den gaietako bat da hau. Zertan datzan azalduko dute; une honetan ez ditu zehaztasunak oso ondo gogoratzen.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Hemen, udaletxean, arrapala bat egingo da, adibidez, baina Batzordean emango dira azalpen guztiak.

Eta gaueko zortziak eta hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.  
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,